

# **Orixeren egitasmoa klasiko greko-latindarrak euskaratu eta argitaratzeko**

**Un proyecto de Orixe para la traducción y publicación  
en lengua vasca de los clásicos grecolatinos**

**Le project de Orixe pour traduire et publier en basque  
les classiques grecs et latins**

**Orixe's plan to translate and publish Greek and Latin  
classics in Basque**

BILBAO TELLETXEA, Gidor  
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Noiz jaso: 2018-03-10

Noiz onartua: 2018-04-11

*Euskera*. 2017, 62, 2. 375-397. Bilbo  
ISSN 0210-1564

Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka eta Artxiboan, Nikolas Ormaetxea «Orixe» idazleak 1919an Pedro Lardizabal euskaltzain urgazleari bidalitako gutun bat dago. Gutun horretan, bere bitartekaritza eskatzen dio, Euskaltzaindiari egitasmo bat aurkezteko: bilduma bat sortzea klasiko greko-latindarrak euskaratu eta argitaratzeko, jesuiten ikastetxeekin lankidetzan. Artikulu honetan gutun hori argitaratzen da eta egitasmoa ulertzeko behar den testuingurua aztertzen da, arreta berezia eskainiaz Orixeren eta Pedro Lardizabalen arteko harremanari eta *Jesus'en Biotzaren Deya* aldizkariari. Gero, proiektua zehaztasun handiagorekin irudikatu ahal izateko, garai hartako beste bilduma batzuen ezaugarriak gainbegiratzen dira. Azkenik, 1921ean eta 1928an klasiko greko-latindarren itzulpenaren inguruan Euskaltzaindiak bultzaturiko ekimen bi aurkezten dira.

**Gako-hitzak:** Itzulpenaren historia, Klasiko greko-latindarrak, Euskaltzaindia, Nikolas Ormaetxea «Orixe», Pedro Lardizabal Valenzuela, *Jesus'en Biotzaren Deya*.

En la Biblioteca y Archivo Azkue hay una carta enviada por Nikolas Ormaetxea «Orixe» al académico correspondiente Pedro Lardiazabal, en 1919. En esa misiva, pide la intermediación de la Academia para presentar un proyecto: Crear una colección para traducir al euskera y publicar los clásicos greco-latinos, en cooperación con los colegios de los Jesuitas. En este artículo se publica esa carta y se analiza el contexto cultural en el que se impulsa ese proyecto, dedicando especial atención a la relación entre Orixe y Pedro Lardiazabal y a la revista *Jesus'en Biotzaren Deya*. A continuación, para poder explicar mejor el proyecto, se repasan las características de otras colecciones de esta época. Para finalizar, se presentan dos iniciativas impulsadas por Euskaltzaindia en el ámbito de las traducciones de los clásicos greco-latinos, en 1921 y 1928.

**Palabras-clave:** Historia de la traducción, clásicos greco-latinos, Euskaltzaindia, Nikolas Ormaetxea «Orixe», Pedro Lardiazabal Valenzuela, *Jesus'en Biotzaren Deya*.

La Bibliothèque et les Archives Azkue abritent une lettre envoyée en 1919 par Nikolas Ormaetxea «Orixe» à l'académicien correspondant Pedro Lardiazabal. Dans cette missive, il sollicite la médiation de l'Académie pour présenter un projet qui consiste à créer une collection destinée à traduire en basque les classiques grecs et latins, en collaboration avec les collèges des Jésuites. Cet article publie cette lettre et analyse le contexte culturel dans lequel se situe ce projet. Il s'intéresse plus particulièrement aux relations entre Orixe et Pedro Lardiazabal, ainsi qu'à la revue *Jesus'en Biotzaren Deya*. Ensuite et afin de mieux présenter ce projet, l'article étudie les caractéristiques des autres collections de cette époque. Pour terminer, l'article présente deux initiatives lancées par Euskaltzaindia dans le domaine des traductions de textes classiques grecs et latins, en 1921 et 1928.

**Mots-clés :** Histoire de la traduction, classiques grecs et latins, Euskaltzaindia, Nikolas Ormaetxea «Orixe», Pedro Lardiazabal Valenzuela, *Jesus'en Biotzaren Deya*.

In the Azkue Library and Archive of Euskaltzaindia, the Basque Language Academy, there is a letter from the writer Nikolas Ormaetxea «Orixe» addressed in 1919 to the Academy member Pedro Lardizabal. In the letter, Orixe asks for Lardizabal's mediation to present a plan to Euskaltzaindia: to create a collection of Greek and Latin classics, translated and published in collaboration with Jesuit education centres. In this article the letter is published and the historical context is considered, necessary for a better understanding of the project. Special attention is paid to the relationship between Orixe and Pedro Lardizabal and also to the magazine *Jesus'en Biotzaren Deya*. In order to give a more precise insight into the project, we then provide an overview of the characteristics of other collections of the time. Finally, we present two initiatives in the field of translating Greek and Latin classics, promoted by Euskaltzaindia in 1921 and 1928.

**Key words:** history of translation, Greek and Latin classics, Euskaltzaindia, Nikolas Ormaetxea «Orixe», Pedro Lardizabal Valenzuela, *Jesus'en Biotzaren Deya*.

## 1. 1919ko gutun argitaragabea

Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka eta Artxiboaren dokumentazio-bildumaren katalogoa beste lan baterako aztertzen ari nintzela,<sup>1</sup> deigarri geratu zitzaidan Orixeren 1919ko dokumentu baten deskripzioa:<sup>2</sup>

Pedro Lardizabal euskaltzain urgazleari zuzendutako gutuna proposamena eginez, Euskaltzaindiaren ardurapean, greziar eta latindar idazle klasikoen euskarazko itzulpenak argitaratzeko.

«Hektor'en da Andromake'ren izketaldia» Orixeren eskuzko itzulpena.

Ez nuen gogoratzen gai horren inguruko Orixeren gutunik irakurri izana, eta lehenengoz ikusten nuen Homeroren *Iliadako* pasarte ezagun hori Orixek euskaratu zuelako berria. Azkue Bibliotekan dokumentua ikusi eta baieztatu nuen Josune Olabarria bibliotekari-artxibozainaren deskripzioa zuzena eta zehatza zela. Paulo Iztuetaren azken urteetako lan eskergak<sup>3</sup> asko erraztu zuen hurrengo egunetan, badaezpada, testu bi horiek argitaragabeak direla ziurtatzea.

Artikulu honetan, gutunean azaltzen den egitasmoa aztertuko dugu, Homeroren itzulpena beste lan batean argitaratu baitugu.<sup>4</sup> Hona hemen gutunaren transkripzioa:<sup>5</sup>

<sup>1</sup> Lan hau MINECOren *Monumenta Linguae Vasconum 5: Periodizazioa eta kronologia* (FFI2016-76032-P) ikerketa-proiektuaren baitan egin da.

<sup>2</sup> Hau da dokumentuaren identifikazioa Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka eta Artxiboan: «Erreferentzia-kodea: 1.102.08.1919-09. Funtsa: EUS. Dossier-kodea: 1919-09. Biltegi-kodea: KEA. Kopapen-zenbakia: 0001. Izenburua: Orixeren argitalpenetarako proposamena». Euskaltzaindiaren administrazio-artxiboan (ez artxibo historikoan), zuzendaritzaren kanpo-gutuneriaren atalean, sailkatua izateak azaltzen du, seguruenik, ikertzaileak orain arte ez ohartzea testu bien garrantziaz.

<sup>3</sup> 1991ko *Idazlan Guztiak* eta *Orixen eta bere garaia* erraldoiei gehitu behar zaizkie Utriusque Vasconiae argitaletxean 2003an argitara emaniko berrargitalpen osatuak, eta, jakina, Ibai semearekin batera 2006an argitaraturiko *Orixen. Gutunak (1917-1961)*, aurkibide zinez lagungarri hornitua.

<sup>4</sup> Gure ustez, Bilbao 2018 artikuluan erakutsi gura izan dugun moduan, Homeroren itzulpena ez dago, berez, gutun honi lotua.

<sup>5</sup> Bifolio lerrodunaren lau orrialdeetako hirutan idatzi du Orixek gutuna bere eskuz, garbi-garbi; bifolioa erditik tolestuta eta orri-zulagailuz zulatuta dago (zulo birekin, artxibatzeke moduan). Orrialde-zenbakiak lapitzez gehitu dira, seguruenik Azkue Bibliotekan; guk kako zuzen artean

[1r]

JHS

Castillo de Javier, 4 de diciembre de 1919.

Carísimo Padre Lardizabal:

Acudo a Vuestra Reverencia como a correspondiente de la Academia de lengua vasca, por si me pudiera responder a una curiosidad, si no por sí mismo, con preguntas que haga usted, por ejemplo a su pariente Julio Urquijo, académico nato.

He hablado con el Padre Atucha acerca de algunos textos que se pudieran editar de clásicos griegos y latinos, más completos que los trozos escogidos ordinarios, siguiendo más bien el plan de dar obras completas, en cuanto se pueda, con su versión, observaciones gramaticales y vocabulario de cada autor. Como, por otra parte, hemos leído que la Academia fomentará las versiones de obras literarias universales, nos ocurre que pudiéramos contribuir a ellas, con tal de que en beneficio nuestro quisieran editarlas en la lengua original juntamente. De las condiciones habría que hablar después: por lo menos nos habían de dar el número suficiente de ejemplares de cada edición.

Aparte de la salida que pudiera tener una escogida [1v] colección en los centros de Vitoria, Durango, Andoain, Gordejuela, etc. ¿no habría curiosos que la compraran a título de la versión vasca? La utilidad pedagógica para nuestros jóvenes sería enorme, y no digamos nada de la formación literaria sólida. La utilidad y autoridad de una versión concienzudamente hecha sería casi la menor ventaja. Si vieran ustedes la trascendencia que pudiera tener la solidaridad y unión de esfuerzos de los centros indicados, favorecidos por esa suprema corporación, se animarían sin duda a poner una imprenta griega, cosa indispensable, o a editar entre tanto esas obras, aunque sea en París o en Barcelona.

Tengo sobre la mesa un lindo tomo de los *Diálogos de los muertos* del autor Luciano, editado en la librería de Colin (París), que serviría

---

eman ditugu (*r* eta *v* gehituta). Testua Orixeren grafian eman dugu, baina puntuazioa gaurko erara moldatuta (oso aldaketa gutxirekin); laburdurak (*P.*, *V.R.*, *Vd.*, *Affmo.*, *J.C.*) osatuta eman ditugu; Orixek lerroartean gehitu dituenak bakoitza bere lekuan txertatuta transkribatu ditugu, oharrik gabe. Artikulu honen eranskinean eman dugu Orixeren eskuzko gutunaren argazkia.

de comienzo. Detrás vendrían la *Ciropedia* de Jenofonte y otras obras históricas, poéticas y oratorias. Dígase lo mismo de las *Vidas de varones ilustres* de Cornelio Nepote, *Cartas* y tratados filosóficos de Cicerón, etc., etc., cuya traducción me animaría a emprender. En las notas literarias y gramaticales, y en el vocabulario vasco y castellano, para los que no entienden aquella lengua [2r], me ayudarían otros.

A ver si tienta Vuestra Reverencia el terreno y responde a esta carta. El asunto de ella no es quimérico sino muy realizable, práctico y necesario, si queremos hacer cosa derecha y no desorientarnos en el movimiento que comienza.

Acabo de recibir el número de *Deya* que, prescindiendo de lo de Z.P., cuyas páginas ya instintivamente ni las recorro (iqué pasará a otros no iniciados!), prescindiendo de eso –digo–, ha llegado a dar en el *quid*, como yo no me atreviera a augurar. Esto en cuanto al tomo literario; que en lo demás, por lo interesante, como la carta del Padre Zenón, la música tan bien presentada (ilástima que la letra me resultó prosaica, por atarme al Evangelio!), lo de Pedro Miguel, la relación del Estanislao de Zumaya, y sobre todo la de Arrieta D., más el postre de agri-dulces, es un número modelo; ideal iba a decir, hecha la salvedad primera. Mil enhorabuenas. Si se sostiene así, hará una campaña excelente.

Yo todavía nada le envío. Veremos para el mes de enero.

Afectísimo en Jesucristo,  
N. Ormaechea. S.J. [errubrikarekin]

Ikusten denez, gutuna Xabierren, hain zuzen jesuiten ikastetxean, 1919ko abenduaren hasieran idatzia da. 1919koa urte gogorra izan zen Orixe-  
rentzat. Patxi Altunak (1989, 107-108) azaltzen du teologia-ikasketak  
hasi baino lehen hiru urte egin ohi zirela maisu-txiki bezala (magisterio-ur-  
teak), mutil gazteen irakasle-lanetan, baina nagusiek Orixei sei urte egina-  
razi ziotela eginkizun horretan, zigor gisa-edo, agian euskal gaietan denbora  
larregi ematearren; Orixe berak 1943an idatzitako *De mi vida externa*  
apunte biografikoetan (Iztueta & Iztueta 2006, 511-525) zehazten du are  
sendagile psikiatra batenera bidali zutela nagusiek, zoro gaixotzat hartuta,  
baina 1918-1919 ikasturtea amaitu ondoren Orixe jesuiten probintzialari  
eta bisitatzailari idatziriko gutunetan (Iztueta & Iztueta 2006, 31-48) ikus-

ten dugu bestelako salaketan aurrean ere bere burua defendatu beharra ikusten duela: irakasle txarra izatea, ikasleak mendean hartzen ez jakitea, marmarka aritzea, nagusiekin manugaitz izatea, euskaltzale eta are abertzale izatea, literaturako eskoletan gai lizunak erabiltzea... haien ustez ezdeusa izatea. Nolanahi ere, 1919ko gutunaren alderdi batzuk ulertzeko, axola handikoa da jakitea Xabierko ikasturte horretan (1919-1920an) latin-gramatika eta grekoa irakasten ziharduela.

Gutuna Aita Lardizabali zuzendua da. Pedro Lardizabal Valenzuela jesuita (Ziburu 1880 - Donostia 1928)<sup>6</sup> Ignacio Lardizabal segurarraren semea zen, hain zuzen EAJren GBBko lehenengo presidentearen semea, Gipuzkoako familia handienetako bateko kidea. Gutunean aipatzen den Julio Urkixorekiko ahaidetza, Urkixoren emazte Vicenta Olazabalen bidez zetorkion.<sup>7</sup> Jakina denez,<sup>8</sup> Julio Urkixo Euskaltzaindiaren sorrerako euskaltzain osoen laukotekoa zen (Resurrección María Azkue, Arturo Campión eta Luis Eleizalderekin batera, Oñatiko 1918-09-05eko sorrera-batzarrean izendaturik); Pedro Lardizabal 1919ko urriaren 26ko batzarrean hautatu zuten euskaltzain urgazle,<sup>9</sup> eta, Ziburun jaioa izan arren, hasieratik agertzen da gipuzkoarren artean, Segurako jatorriagatik. Gogorazi behar da Euskaltzaindiaren lehen batzar horietan garrantzi berezia izan zutela euskal aldizkariak,<sup>10</sup> eta

<sup>6</sup> Pedro Lardizabali buruzko informazioa lortzeko, bi hauek izan dira gure iturri nagusiak: Intxausti 2014, 255-256 eta Zavala y Fernández de Heredia 2008, 29, 61, 87, 137 (hainbat autoreren artean idatziriko liburuan zehar sakabanaturik daude datuak). Zavala Artxiboko familia-gutunak ere irakurri ditugu, Euskadiko Artxibo Historikoaren webgunean (<https://dokuklik.euskadi.eus/>); horietan *Perico* eta *Pericocho* deitzen diote, eta *Perico S.J.* sinatzen du.

<sup>7</sup> Vicentaren aita (Tirso) eta Pedorena lehengusu propioak ziren. Gainera, Borja Aginagaldek dioenez (Zavala y Fernández de Heredia 2008, 138), Tirso Olazabalek aurkeztu bide zion Ignacio Lardizabali gero emazte izango zuena.

<sup>8</sup> Iturri zuzena *Euskera* aldizkarian argitaraturiko txostenak dira (Elgezabal & Landaburu 1920 eta Euskaltzaindia 1920b), baina baliagarri dira Onaindia 1977, 134-138 eta Torrealdai & Murua 2009 ere.

<sup>9</sup> Orixe bera ere saio horretan bertan izendatu zuten euskaltzain urgazle.

<sup>10</sup> 1918an aurkezturiko estatutuen zirriborroan kapitulu gehigarri bat zegoen: «Capítulo adicional: [...] La elección de los Académicos restantes lo harán como compromisarios [...] las personas que designen las revistas *Jaungoiko Zale*, *Euzko Deya*, *Josuren Biotzaren Deya*, *Euskal Erria*, *Euskalerriarren Alde*, *Revista Internacional de Estudios Vascos* y *Euskalduna* de Bayona» (ikusi *Euzkadi* egunkaria, 1918-10-24, edo *La Libertad* egunkaria, 1918-10-25).

hain zuzen horietako baten izenari lotuta agertzen da Lardizabal, *Jesus'en Biotzaren Deya* aldizkariaren lehenengo zuzendaria eta arduraduna izan baitzen 1917tik 1920ra, seguruenik hain zuzen lan horren zigor gisa Burgo-sera erbesterratu zuten arte, abertzaletasuna bultzatzen zuelakoan edo.<sup>11</sup>

Orixeren eta Pedro Lardizabalen arteko lotura ere aldizkari honi zor zaio, hain zuzen *Jesusen Biotzaren Deyan* argitaratu baitzituen Orixek bere lehenengo euskal idazlanak, hain justu Pedro Lardizabalek bultzatuta. Hona hemen Santi Onaindiaren hitzak (Onaindia 1975, 229-230):

Nork jarri ote zuen orexatarra euskal bidean, idaz-lanean batez ere? Segura'ko seme ta euskal idazle jator Aita Lardizabal izan zan nunbait, Orixe'ren doai bereziak ikusiz, idazkortza artu-erazi ta idazten ezarri zuena. A. Lardizabal'ek, A. K. Basabe ta beste josulagun batzuekin, sortu zigun Bilbo'ko «Jesus'en Biotzaren Deya» (1917-1937) aldizkaria. Emen agertzen dira Orixe'ren lehenengo lanak, bertsoz eta itz-lauz agertu ere. Aldizkari orren lendabiziko zenbakian dator «Igesi» olerkia, Orixe'ren lehenengo noski, argitaratua. Ondoren ere ortxe eman zizkigun ainbat latin eresi euskerazturik, eta prosazko «Ni naiz bidea», «Igandea», «Onezko amesa», «Gizonen argia», ta «Jainkozko biziera ta ongienera eldutzeko Lasterbide bikaña», Nieremberg Aitak erderaz egiña, euskeraztuta, batez ere. Zenbaki bakoitzean bi lan argitaltzen zizkioten geienetan.

Eta jesuita-nagusiek aginduriko isiltasuna eta zigorra ere bie bateratsu iritsi zitzaizkien, nonbait, hain zuzen 1919ko amaieran edo 1920ko hasie-

<sup>11</sup> Aldizkariari buruz, Onaindia 1977, 145-152 eta Iztueta 1991, 490-494 irakur daitezke. Pedro Lardizabalen zoriari buruz, jakingarria da Iñaki Goenaga jesuitak Pako Suduperi esandakoa (Sudupe 1999, 17): «Aita Bianchi [jesuiten errektorea] erregezalea zen, Alfonso XIII.aren zalea [...]. Erregearen ahaide egiten zen Segurako Lardizabal, *Jesusen Biotzaren Deya* aldizkaria sortu zuena 1917an; Orixeri, eta ahotan ditugun juniorrei, besteak beste, idazteko plaza eskaini ziena gerra aurrean. Aldizkari hau dela eta, kexu zen erregea bere familian ere eusko nazionalismoaren gaitza hedatua zelako. Burgosa bidali zuen ahaidea, euskal kutsuz garbitzeko». Zergatik ziren ahaide Lardizabal jesuita eta Alfontso XIII.a? Pedrorren anaia, Jose María Lardizabal, Josefa Silvarekin ezkondu zen, eta honen ahizpa, María Luisa Silva, Fernando Baviera Borboikoarekin, zeina Alfontso XIII.aren lehengusua eta Espainiako Infantea baitzen. Garai hartako prentsan (*La esfera, La correspondencia de España, El Cantábrico, La ilustración artística...*) ikusten denez, Pedro Lardizabalek ezkondu zituen infanteak 1914an, Hondarrribian.



ran.<sup>12</sup> Patxi Altuna Orixeren isilaldi behartuaz ari da lerro hauetan (Altuna 1989, 105):

*Deya*-ren [...] 1920ko hamabi aleetan ez dago Orixeren lanik bat ere. Beraz galtzeko arrisku handirik gabe egin genezake apustu Agintariet debekatu ziotela hartan jarraitzea, edota onbeharrez eskatu isil zedin eta lantegi hartatik geldi.

Dena den, hemen argitaratu dugun gutuneko azken paragrafoan ez da halakorik antzematen, Orixe normaltasun-itxuraz ari baita 1919ko abenduko zenbakiaz,<sup>13</sup> eta are aditzera ematen baitu zerbait bidaliko duela 1920ko urtarrileko lehenengo zenbakirako. Gure ustez hilabete horietantxe gertatu bide ziren jesuita-nagusien presio gogorrenak Orixeren aurka, eta akaso hurrengo hilabeteetan (urtarrila eta maiatza bitartean) gertatu ziren Lardi-

<sup>12</sup> Aita Pedro Lardizabalek 1920ko ekainaren 23an idazten du Burgoseko erbestealdiko lehenbiziko gutuna (Soledad lehengusinari zuzendua), eta zehazten du bezperan abiatu zela Deustutik. Baina aurreko gutunetan ere nabari da erbeste-zigorraren berri dakiela; 1920-06-03an Madriletik Soledatxori idatzitakoan, antzematen da seguruenik zigorraren berri jasotzera joan dela Madrilera (cf. Zavalala Artxiboko familia-gutunak, Euskadiko Artxibo Historikoaren webgunean (<https://dokuklik.euskadi.eus/>)).

<sup>13</sup> Orixek aipatzen dituen artikuluak *Jesus'en Biotzaren Deyaren* gipuzkerazko bertsiokoak dira, 36. zenbakikoak (1919ko abendua). Orixek atsekabez eta mespretxuz aipatzen duen *Z.P.*, gure ustez, *Zugatzaga'tar Pillipa* izan behar da, hots Felipe Zugatzaga Galiarzagaitia (Zornotza 1866 - Loiola 1929); 1919ko zenbaki guzti-guztietan idazten du lehenengo artikulua, *Asmoak* atalekoa; eta, lantzean behin, baita besteren bat ere; dirudienez, euskara eredu da Orixeri atzeraka eragiten diona («Zingien (ziñiste-gabien) biurpena (ontzea)» da artikulua izenburua); bere gainerako lanei buruz, ikusi Onaindia 1977, 150. *Padre Zenon* deitua Zenon Aranburu Urkiola da (Urretxu 1879 - Loiola 1969), Wuhuko (Txina) gotzaina izango zena, bere idazlanak Txinatik bidali ohi zituen (Onaindia 1977, 149). Musika ondo aurkeztua eta letra prosaikoegia aipatzen dituenean, *Artzayak* abestiaz ari da, zeina Nemesio Otañoren musikaz eta Orixeren beraren letraz paratua baita. Hurrengo hiru aipuak *Jesus'en Biotzaren berri onak* atalari dagozkio: *Pedro Miguel* deitua Pedro Migel Urruzuno Salegi (Elgoibar 1844 - Mendaro 1923) da, eta Mendaroko kronika idazten du garai hartan hango moja-komentuan zegoelako abade (Onaindia 1974, 187-192); Zumaiatik idazten duena anonimoa da, San Estanislaoaren Kongregazioko edozein izan baitaiteke; Arrasate-tik idazten duen *Arrieta'tar D.*, aipatzeko moduagatik, ez dirudi Orixerentzat ezaguna zenik, baina Domingo Arrieta «Onalde» izan behar da, *Jesus'en Biotzaren Deyan* bezala, hurrengo urteetan *Euzkadi* eta *El Diako* euskal orrietan eta *Argia* astekarian ehunka artikulua idatzi zituena. Azkenik, *el poste de agri-dulces* Pedro Lardizabalek berak aldizkariaren garai honetako zenbaki guztietan idatzi ohi zuen *Gazi-gezak* atala da.

zabalen aurkakoak, eta seguruenik artean ez zuten batak bestearen egoeraren berri.<sup>14</sup>

Bestalde, Orixeren eta Lardizabalen arteko beste gutunik argitaratu ez den arren, pentsatu behar da, 1917-1919 tartean, sarri idatzi bide ziotela elkarri, *Jesus'en Biotzaren Deyako* kontuen inguruan. Horren zantzuak agertzen dira Orixek Aita Leza Probintzialari 1919-08-21ean idatziriko gutunean (Iztueta & Iztueta 2006, 32), non Lardizabalek Orixeri idatziriko zazpi gutunetatik ateratako pasarteak aipatzen baitira, beti Orixek *Jesus'en Biotzaren Deyan* argitara emandako idazlanen inguruan.

## 2. Klasiko greko-latindarrak argitaratzeko proiektua

Hemen argitaratu dugun gutunean, bestelako gai bat agertzen da, Orixek proiektu berri bat (guretzat ezezaguna orain arte) aurkeztu gura baitio, Pedro Lardizabal euskaltzain urgazlearen bidez, Euskaltzaindiari. Klasiko greko-latindarren bilduma sortzea proposatzen du, honako osagai hauekin: jatorrizko testua grekoz edo latinez, Orixeren euskal itzulpena, literatura eta gramatikari buruzko oharra, euskarazko hiztegia eta gaztelaniazko hiztegia.

Proiektuaren ezaugarriak hobeto ulertzeko, uste dugu aski argigarria dela proposatzen duen eredia ezagutzea. Aipatzen duen Luziano Samosatakoaren liburua hau da: *Lucien. Choix de dialogues des morts, avec notes et lexique par R. Pessoneaux*. Lehenengo edizioa 1891koa da, baina hainbat aldiz berrargitaratu zen XX. mendearen hasieran. Argitaletxea *Librairie Armand Colin* da, Pariskoa. Armand Colin eskola-liburuetan espezializaturiko argitaletxea da; 1870-1880ko hamarkadetan, argitaletxearen hasierako urtee-

<sup>14</sup> Gutxi aztertu da *Jesus'en Biotzaren Deyaren* historia, baina gauza ezaguna da aldizkariaren lehenengo urteetan bi edizio argitaratzen zirela, biak Bilbon: bat «Bizkaiko euskeraz» eta bestea «Gipuzkoa'ko euskeraz». 1920ko lehenengo zenbakiaz geroztik, edizio bakarra egiten da (diru-ara-zoengatik, aldizkariaren 37. zenbaki horretan diotenez). Pedro Lardizabalen sinadura Gipuzkoako euskarazko edizioan bakarrik agertzen da (batzuetan izen osoarekin, bestetan *P.L.*, eta noizbait *Laurgain* goitzenarekin), ez Bizkaiko euskarazkoan, protagonismo handiarekin 1917-1919. urteetan; 1920an, *Gazi-gazak* atala baino ez du sinatzen (eta beste artikuluko solteren bat), eta 1921az geroztik ez da gehiago agertzen.

tan, lehen hezkuntzako ikasliburuak argitaratu zituzten, baina, 1880ko hamarkadaren amaieran, bigarren hezkuntzako ikasliburuekin ere arrakasta lortu zuten eta, geroztik, haur eta gaztetxoek hezkuntza-ibilbide osorako sortu zituzten eskola-liburu arrakastatsiak (Bermond 2008, 57):

Armand Colin s'oriente, à la fin des années 1880, vers les manuels pour le secondaire, investissant des moyens et des compétences à la mesure des ambitions qui sont désormais les siennes : accompagner l'instruction des jeunes Français de la petite enfance à la fin de l'adolescence, des premiers savoirs de l'école élémentaire au programme du baccalauréat, voire au-delà. Ainsi la Librairie propose une collection de classiques latins et une de classiques grecs, sous la direction d'universitaires connus et reconnus, selon la politique de l'éditeur qui veut que la qualité de la signature fasse la qualité de l'ouvrage.

Garaitsu horretan, Parisko argitaletxeak klasikoek bilduma bi zituen: *Collection de Classiques Grecs, publiés sous la direction de M. Alfred Croiset* grekozko autoreekin, eta latinezkoentzat *Collection de Classiques Latins, publiés sous la direction de M.A. Cartault*. Baina bilduma bi horietan (bietan antzera) ez dago jatorrizko testua eta frantsesezko itzulpen osoa dituen libururik. Liburu horiek egitura hau izaten zuten: hitzaurrea frantsesez (luzera eta sakontasun desberdinetakoak, autorearen arabera); testua grekoz edo latinez zutabe bakarrean (batzuetan atal bakoitzari dagokion aurkezpen-sarrerarekin, frantsesez); azpian, oharrak frantsesez zutabe bitan, jatorrizkoa ulertzen laguntzeko (eskola-ohar ohikoak); batzuetan, testu osoaren ondoren, grekoa-frantsesa edo latina-frantsesa hiztegia. Eredu moduan Orixek mahai gainean zeukan alean, osagai horiek guztiak daude, gehi, grekozko testuen ondoren, tarteka, François Fénelonen *Dialogues des morts* laneko dagokion zatia, grekozkoan inspiratua («Passage á rapprocher de ce dialogue»). Armand Colin argitaletxeak bestelako bilduma batean argitaratzen zituen frantsesezko itzulpenak: *Lectures littéraires. Pages choisies des grands écrivains* bilduman (hor argitaratu ziren, adibidez, Sofokles, Euripides eta Eskiloren tragediak, edo Homero).

Bistan da Orixek bi asmo batu gura dituela proiektu bakarrean: jesuiten ikastetxeetan grekoa eta latina gaztelaniaz irakasteko balioko zuten liburuen bilduma egitea, eta klasiko greko-latindarren euskal bertsioren bilduma sortzea.

Lehenengo asmoa jesuiten ikastetxeen onerako litzateke («en beneficio nuestro»). Asmo horri dagokionez, Aita Atutxaren autoritatea aipatzen du; pentsatzen dugu Antonino Atutxa Aldekoa izan behar dela, erretorika-irakaslea jesuiten ikastetxean Orixerekin batera.<sup>15</sup> Nolanahi ere, ez litzateke oso itzal handiko autoritatea izango, Orixeren beraren adinekoa baitzen, eta ez, guk dakigula, irakasle-nagusi izen handikoa.

Bigarren asmoari dagokionez, Euskaltzaindiaren egitasmoetako bat gauzatzeko balioko luke, Orixeren esanetan: «hemos leído que la Academia fomentará las versiones de obras literarias universales» dioenean, *Euskaltzaindiaren sortarauak* dokumentuan jasoriko hitzez ari da. Hitzez hitz hone-la dakar, helburuen atalean (Euskaltzaindia 1920a, 3):

Idazteunak, eta giza-gutunetakorik omen diran ospatsuenak, euskerara itzulerazten ekingo du.

Promoverá la traducción de los libros divinos y de los universalmente reconocidos como capitales en la literatura general.

Euskaltzaindiak 1920-06-22/23ko batzarrean onartu zuen testu hori, baina 1918an argitaratu zen zirriborroa (gaztelaniaz bakarrik) garai hartako aldizkari eta egunkarietan, 1918-11-08ra arteko epea emanez zuzenketak proposatzeko.<sup>16</sup>

Klasiko greko-latindarren bildumarako Orixek hautatu zituen lanak aztertzea geratzen zaigu, baina lehenago iruzkina behar dute beste hitz hauek

<sup>15</sup> Zeharkako datuak baino ez ditugu Aita Atutxa hori Antonino Atutxa Aldekoa bide dela pentsatzeko. Jokin Zaitegiren bidez dakigu («Urkiaga ta biok» 1974ko artikulua ospetsuan dioelako) 1920-1921 ikasturtean «Aita Atutxa Antonino» zela Durangoko jesuiten ikastetxean erretorikako ikasleen (hots, laugarren kurtsoko ikasleen) «erderazko itzaldi ederrak» zuzendu zituena. Bestalde, Josemari Velez de Mendizabalek Gaizka Barandiaran jesuita itzultzailearen bizitza laburtzean zehazten du «Antonino Atutxa zeanuritarrarekin elkarrizketatu ondoren» onartu zutela 1928an Durangoko komentuan. Euskadiko Artxibo Sistemaren agiri sakramentalen datu-basean ikusi dugu Zeanurin bataiaturiko Antonino Atutxa bakarra Antonino Atutxa Aldekoa dela, Zeanurin 1881-09-02an bataiatua. Bestalde, 1912ko *Cartas edificantes de la Provincia de Castilla* urteko Xabierko ikastetxeari dagokion txostena Antonino Atutxa honek sinatua da.

<sup>16</sup> Gasteizko *La Libertad* egunkarian, adibidez, 1918-10-25eko lehenengo orrialdean argitaratu zen, «Academia de la lengua vasca. Bases de su constitución» izenburuarekin. Bezperako *Euzkadi* egunkarian (1918-10-24), egunkariaren erredakzioan idatzitako sarrera erantsi zioten aurretik: «Un paso importante para el euzkera».

ere: «más completos que los trozos escogidos ordinarios, siguiendo más bien el plan de dar obras completas». Hitz horiek jesuita-nagusiei zuzendutako direla uste dugu, egitasmoa jesuiten beste lan batzuen osagarri (eta ez lehiakide) gisa aurkezteko. Gorago aipatu ditugun apunte autobiografikoetan Orixek berak esanik dakigu,<sup>17</sup> 1919-1920 ikasturtean, Orixe gutuna idazten ari zen ikasturtean, latin-gramatikako ikasliburu berria ezarri zutela nagusiek Xabierko ikastetxean, hain zuzen Orixeren ikaskide izaniko Ignacio Errandonearena (Errandonea, 1918). Liburu horretako atal bakoitzak «Trozo de traducción» bat dauka eta, autoreak ohar batean (Errandonea 1918, V) aipatzen duen arren *Antología latina* bat argitaratuko duela laster gramatikaren osagarri gisa, ez zen geroztik halakorik argitara eman, guk dakigula. Baina interesgarria da *Eugenio Subirana Editor y Librero Pontificio* argitaletxeak<sup>18</sup> liburuaren amaieran egiten duen publizitatea, jesuiten ikastetxeetan erabiltzen ziren beste hainbat eskulibururen artean iragartzen baitu *Selecta ex optimis Latinis auctoribus*, lau liburukitan, erosleentzako dei honekin (Errandonea 1918, 328):

Muy conocida es esta colección de selectísimos fragmentos de prosa y poesía latinas, dispuestos en orden didáctico ascendente, para servir de texto en las aulas de latinidad, y aclaradas con oportunas y utilísimas notas.

Antologia hori mundu osoko jesuita-ikastetxeetan erabiltzen zen,<sup>19</sup> grekozko beste honekin batera: *Selecta ex optimis Graecis auctoribus ad usum*

<sup>17</sup> Hona hemen Orixeren hitz zehatzak: «Sucedió que aquel año [1919-20] se cambió el texto de Gramática: la del portugués Álvarez en latín por la del P. Errandonea en español. El profesor que explicaba segundo de latín se negó a explicarlo, y llamándome el Superior me propuso si yo estaba dispuesto a sustituirle. Le dije que el texto me era indiferente, y que lo haría con mucho gusto» (Iztueta & Iztueta 2006, 518). Errandonearen eskuliburu Kolonbian argitaratu zen lehenbizikoz, 1911n; horregatik, Bartzelonako 1918ko argitalpenak «Segunda edición» dakar.

<sup>18</sup> Jatorrian erlijio-gaetan espezializaturiko argitaletxea zen, 1862an sortua; baina XX. mendeko lehenengo hiru hamarkadetan, jesuiten ikastetxeetan erabiltzen ziren ikasliburu eta eskuliburuak argitaratu eta saldu zituzten, jesuitek idatziak edo itzuliak (Llanas 2005, 197-201).

<sup>19</sup> Adibidez, Denver (Colorado) urruneko College of The Sacred Heart jesuita-ikastetxeko 1909-1910 ikasturteko ikasketaprograman, latinezko antologia hau aipatzen dute (lau liburukiak, kurtsoen arabera).

*scholarum Societatis Jesu* (bi liburukitan). Bi antologia hauekin lehiarik ez agertzeko, zerbait bereizgarria behar zuen Orixeren egitasmoak: idazlanen zati hautatuak izan beharrean, idazlan osoak argitaratzea.

Eta autoreetan, ba al dago bat-etortzerik? Errandonearen gramatikako itzulgai hautatueta, autore hauen lanetako zatiak agertzen dira: Zizeron (gutunak, solasaldiak eta hitzaldiak), Plinio Gaztea, Kinto Kurtzio, Zesar, Fedro eta Salustio. Jesuiten ikastetxeetarako paraturiko latinezko antologian, hauek: (1) Zizeron (gutunak eta hautaturiko zatiak), Kornelio Nepote, Fedro. (2) Zizeron (gutunak eta hautaturiko zatiak), Zesar, Ovidio. (3) Zizeron (gutunak, solasaldi filosofikoak eta hitzaldietako zatiak), Kinto Kurtzio Rufo, Tazito, Katulo, Tibulo, Propertzio, Virgilioren *Bukolikoak*, Virgilioren *Georgikoak*, Kintiliano, Zizeronen hitzaldiak, Tito Livio, Martzial, Ovidio, Virgilioren *Eneida*, Horazio. (4) Zizeron (*De oratore* eta hitzaldiak), Tito Livio, Salustio, Tazito, Horazio, Virgilio, Plauto. Grekozko antologian, autore hauek bildu dira: (1) Esopo, gutun hautatuak, Isokrates, San Basilio, Tuzidides, Herodoto, Xenofonte, Luziano Samosatakoa (*Encomium patriae*), San Krisostomo, Demostenes. (2) Anakreonte, epigrama hautatuak, epitafio hautatuak, San Gregorio, Teokrito, Bion Esmirnakoa, Safo, Pindaro, Homero. Hor dugu, beraz, garai hartako jesuiten ikastetxeetan latina eta grekoa irakasteko erabiltzen ziren klasikoen kanona.

Orixeren Luziano eta Xenofonte, Zizeron eta Nepote horien artean dira, jesuita-eskoletako klasikoen kanonetik hautatuta, hain zuzen oinarri-oinarizko mailetakoetatik. Hautua Orixeren une horretako irakasle-lanari loturik dago, gure ustez, eta ez geroago literaturaren eta itzulpenaren zertarakoaz garatuko duen gogoetari.<sup>20</sup>

Esan beharrik ez dago edukiari begira bertutearen eta moralaren irakasle direla hautaturiko autore guztiak. Luziano litzateke badaezpadakoa moral

<sup>20</sup> Gai honi buruz, Ruiz Arzalluz 2009 eta 2010 dira ezagutzen ditudan azterketarik zorrotz eta zehatzenak. Aipaturiko bigarren lanean dago, bestalde, Orixek urte horietan euskaratu zituen klasikoen erreferentzia zehatzena: Horazioren *Epodoak* II (1919an), Virgilioren *Georgikoak* III, 75-88 (1919an) eta Homeroren *Iliada* XXIII, 708-739, 754-784 (1921ean). Horiei gehitu behar zaie gutun honekin batera dagoen Homeroren *Iliada* VI, 466-496 argitaragabea, gure ustez proiektu honekin loturirik ez duena.

estuaren ikuspegitik,<sup>21</sup> eta, zalantza gutxi daukat Orixek ez zukeela hildakoen solasaldien liburua osorik euskaratuko, ondo garbituta baino (izan ere, proposatzen duen eredu bera ere *Choix de dialogues des morts* da, solasaldi hautatuak).

### 3. Euskaltzaindiaren ekimen bi klasikoen itzulpenaren inguruan

Ez dakigu Pedro Lardizabalek gutun honi erantzun zion ala ez. Gutuna hitzez hitz irakurriz gero, Lardizabal bitartekaria baino ez zen Orixerentzat. Baina lerroartean irakurtzen badugu, Orixek ez zuen hautatu Lardizabal Urkixoren ahaide zelako bakarrik. Orixek dioenean jesuiten ikastetxeek alfabeto grekoko tipoak erosiko lituzketela («los centros indicados [...] se animarían sin duda a poner una imprenta griega, cosa indispensable, o a editar entre tanto esas obras, aunque sea en París o en Barcelona»), ezinbestean izan behar du buruan *El Mensajero del Corazón de Jesús* argialetxea, izen bereko aldizkaritik abiatuak, 1915az geroztik, argialetxe-lana egiten zuena, Remigio Vilariño jesuita gernikarraren zuzendaritzapean. Argialetxe horrek debozio-liburuak argitaratzen zituen gehienbat, baina 1920an bertan, adibidez, Julian Egia bibliotekariaren *Mi biblioteca* argitaratu zuen, funtsean bibliotekonomiako eskuliburu bat; geroago, 1924an, *Sófocles. Edipo* Rey Ignacio Errandonearen itzulpena argitaratu zuen (gatzelaniaz, grekozko testurik gabe). Bilduma berriko lanak Bartzelonan inprimatzeko aukera mahaigaineratzean, Orixek *Eugenio Subirana Editor y Librero Pontificio* argialetxea izan zezakeen buruan, hain zuzen gorago aipatu duguna. Jakinik zein estua zen *Jesús en Biotzaren Deya* aldizkariaren eta *El Mensajero del Corazón de Jesús* aldizkari eta argialetxearen arteko lotura,<sup>22</sup> pentsatu behar

<sup>21</sup> Llanas 2005en bilatu dugu jesuiten irakaskuntzari buruzko dokumentu nagusietan zelan epaitzen diren lau autore hauek. Luzianoren kasuan, Josephus Juvenciusen *De ratione discendi et docendi* (1703) liburuko zati hau interesatu zait: «caute admodum, nec totus, legendus est» 'kontuz baino ez da irakurri behar, eta ez osorik'.

<sup>22</sup> Pedro Lardizabalen 1914-06-04ko familia-gutunean (euskarazko *Jesús en Biotzaren Deya* aldizkaria sortu baino lehen) ikusten denez, gatzelaniazko *El Mensajero del Corazón de Jesús* aldizkariari loturik

dugu Orixeren ustez Pedro Lardizabal beste edozein euskaltzain urgazle baino leku hobean zegokeela bere egitasmoa bideratzen lagundu ahal izateko. Ez zekien, seguruenik, Pedro Lardizabal bera ere jesuita-nagusien susmopean zegoela ordurako, euskaltzaleegia zelako edo.

Baina proiektua iritsi zen iritsi behar zuen lekura, Euskaltzaindira, erakunde honen artxiboan baitago dokumentua gaur ere. Aztertu al zuen Euskaltzaindiak eskaria? *Euskera* aldizkarian agerturiko hurrengo batzar-agirietan (1919ko abendutik 1920ko uztailean artekoetan) ez da Orixeren proposamena aipatzen, ezta klasikoen argitalpenarekin edo itzulpenarekin erlazonaturiko beste ezer ere.

Klasikoen itzulpenarekin erlazonaturiko hurrengo berria, Euskaltzaindiaren inguruan, 1921eko Durangoko Euskal Egunen kariaz antolaturiko literatura-sariarena da. Euskaltzaindiak urtero antolatzen zuen halako sari-keta, eta urtero erabakitzen ziren sail eta gai berriak. 1921ekoari dagokionez, apirilean argitaratu ziren oinarriak *Euskal-Esnalea* aldizkarian; sei sail iragartzen ziren, eta seigarrena da hemen interesatzen zaiguna: «Gerkera naiz laterazko elerti-ereduren baten euskeralpena lerrojaregiñez eta edozein euskalkiz» (Aztertze, 1922a). Epaimahaiaren ebazpena iragartzean, gaztelaniaz jakinarazi zuten: «Traducción en prosa, en cualquier dialecto, de algún trozo literario del clasicismo greco-latino» (Aztertze, 1922b).<sup>23</sup> Lan saritua (Virgilioren I. Bukolikoaren itzulpena, Luzio Arregi urnietarrak euskaratua «Melibeo ta Titiroren arteko alkar-izketa» izenburuarekin), 1923an

---

ikusten du bere burua («nosotros los del Mensajero» idazten du). Bestalde, «El Mensajero del Corazón de Jesús - Sal Terrae - De broma y de veras - Rayos de Sol» komunikazio-taldearen idazpurua zuten orriak erabili zituen 1914-02-27ko bere gutunean, eta «Redacción. El Mensajero del Corazón de Jesús - Sal Terrae - De broma y de veras - El Siglo de las Misiones - Jesus'en Biotzaren Deya - Rayos de Sol - Repertorio Músico Sal Terrae» taldearen idazpurua zuten orriak 1918-07-01eko bere gutunean.

<sup>23</sup> Euskaltzaindiaren artxiboan hiru dokumentu daude (karpeta bakarrean) lehiaketa-modalitate honetako sarituarekin erlazonaturik: 1) Gregorio Maidagan idazkariak irabazleari (Luzio Arregi urnietarrari) 1922-04-21ean mekanografiaturiko gutunaren kopia. 2) Irabazleak Gregorio Maidagani 1922-04-24an bidalitako erantzuna (eskuz idatzia). 3) Irabazleak sinaturiko idatzia (1922-04-30), sariari dagokion dirua jaso duela egiaztatzen duena. Hau da Euskaltzaindiaren Azkue Artxiboko erreferentzia zehatza: «ABA.KEA. Saila: Sariak eta bekak. Literatura sariak. Kokapen kodea: KEA-0005. Erreferentzia-kodea: 1.415.01.1922-22».



zazpi orrialdeko liburuxka gisa argitaratu zuen Euzko-Argitaldariak, urte horietan Euskaltzaindiaren inguruko lanak argitaratu ohi zituen argitalexteak; eta, gero, bigarrenez, 1925eko *Eusker*a aldizkarian argitaratu zen. Euskaltzaindiaren sariketa horietan ez zen berriro, guk dakigula, klasikoak euskaratzea proposatu. Orixeren eskariaren oihartzun gisa uler daiteke 1921ekoa? Ez dakigu, baina ordurako Nikolas Ormaetxea bazen norbait euskalaritzan, eta hain zuzen Durangoko Euskal Egunetan bi hitzaldi eman zituen Euskaltzaindiak gonbidaturik, eta horietako batean Homeroren *Iliadako* bi pasarte (XXIII, 708-739 eta 754-784) irakurri zituen euskaraz, biak *lerrojaregiñez*, prosan (Ormaetxea 1922, 36-37).<sup>24</sup> Nolanahi ere, Euskaltzaindiaren Artxiboan daude sariketako oinarrien zirriborroak, eta horietan ez da agertzen Nikolas Ormaetxearen izenik ez eskurik.<sup>25</sup>

1928an agertzen da, Euskaltzaindian, autore klasiko greko-latindarrak euskaratzeko beste egitasmo bat. Kasu honetan, Euskaltzaindiko zuzendaritza (Azkue euskaltzainburua) proiektuan zuzenean inplikaturik agertzen da. 1928ko hiru gutun dira: 1) Juan Gorostiaga ikasleak (1905-1988) Gregorio Maidagani Erromatik eskuz idatzia, 1928-03-07ko datarekin. 2) Piarres Lafitte gazteak (1901-1985) Okzitaniako Tolosatik Azkueri eskuz idatzia, datarik gabe. 3) Azkueren erantzuna Piarres Lafitteri (kopia mekanografiatua), 1928-03-01eko datarekin.<sup>26</sup> Ezin ditugu hemen gutunak osorik transkribatu, baina, elkarri idazten diotenetik ondorioztatzen denez,

<sup>24</sup> Bilbao 2018n berrargitaratu ditugu pasarte biak.

<sup>25</sup> Euskaltzaindiaren artxiboan, dossier bat dago Durangoko Euskal Egunetako hainbat dokumenturekin, eta dossier horretako 4. atala zehazki sariketari dagokio: «ABA.KEA. Saila: Jardunaldiak eta Kultura ekitaldiak. Kultura ekitaldiak. Edukia: Euskaleguna Durangon: sariketak. Kokapen kodea: KEA-0003. Erreferentzia-kodea: 1.210.01.1921-14». Karpeta honetan, hiru dokumentu daude sariketarekin erlazionaturik: 1. Sariketako oinarrien zirriborro bat, euskaraz. 2. Sariketako oinarrien bigarren zirriborro bat (lehenengoan oinarritua), euskaraz, argitaratu zenaren gertuagokoa. 3. Sariketako arauen kopia mekanografiatua, gaztelaniaz. Ez dakigu nork idatzi zituen euskarazko zirriborroak (ez daude sinaturik, eta ez dugu idatzi duen eskua ezagutzen), baina ez da Orixeren eskua. Lehenengo zirriborroari ohar bat erantsi zion Juan Bautista Eguzkitza euskaltzainak, eta zirriborrogileari eskatzen zion Luis Eleizalde euskaltzainari erakusteko sariketako oinarriak, argitaratu baino lehen.

<sup>26</sup> Karpeta bakarrean daude hiru gutunak, erreferentzia zehatz honekin: «ABA.KEA. Saila: Sariak eta bekak. Literatura sariak. Kokapen kodea: KEA-0010. Erreferentzia-kodea: 1.102.02.1928-04. Izenerburua: Autore klasikoaren itzulpenak egiteko egitasmoa».

1928ko otsailean Euskaltzaindiko idazkariak, Gregorio Maidaganek, Azkueren izenean, hainbat gazteri idatzi zien (Lafitte eta Gorostiaga biak dira atzerrian ikasten ari diren 23-27 urteko gazteak, eta pentsatzekoa da halako beste batzuei ere idatziko zitzaiela), grekozko eta latinezko autore klasikoak euskaratzeko. Hona hemen Lafittek Azkueri idatzitakoa: «[Maidaganek] dionaz, [zuk, Azkuek] nahi zinueke lankide batzuen laguntzerat ethor nadin, Athenako eta Erromako idazki zaharren eskuaralat bihurtzen».

Dirudienez, bakoitzaren esku geratzen zen zein autore euskaratu nahi zuten erabakitzea. Seguruenik asmoa ez zen liburu osoak euskaratzea, zati hautatuak baino. Lafittek Xenofonte aukeratu zuen: «Xenophon zenaren *Orhoitzapenak* eta *Etxeko-ona*<sup>27</sup> askitto itzul-erraxak zaizkit eta gure herriarrentzat badukete mami bezanbat gozo. Ez ditut lan horiek bururen buru itzuli nahi, zathiak hautatuz baizik»; Gorostiagak Homeroren *Iliadako* bi pasarte ezagun («Hektor'en azken agurra» eta «Akilesen mazmarroa (escudo) zelan egin zan») eta «Tirteoren olerki bat»<sup>28</sup> aipatzen ditu, hasteko.<sup>29</sup> Azkuek zioenez, egitasmo horretako lanak «aurrenez gure *Euskera*-n eta gero gutun berezian azalduko dira».<sup>30</sup>

Kasu honetan ere ez dakigu Euskaltzaindiaren egitasmoan Orixeren proiektuaren oihartzunik ote dagoen; baina gogorarazi behar da ordurako Orixe Euskaltzaindiko langile zela (1923az geroztik), Maidagan idazkariaren,

<sup>27</sup> Xenofonteren *Apomnemeumata* (*Memorabilia*) eta *Oeconomicus* solas sokratikoak dirateke, hurrenez hurren.


<sup>28</sup> Hektorren azken agurra *Iliada* VI, 376-502 da; Akilesen ezkutua *Iliada* XVIII, 478-608 pasartean deskribatzen da. Tirteoren olerkiaren hasiera ematen du grekoz eta I Kantuari dagokio («Hiltzea ederra da aberriaren alde...»).

<sup>29</sup> Gorostiagak gogo biziz hartzen du proposamena, baina asti gutxirekin dabilela abisatzen du. Lafittek gogo gutxirekin onartzen du egitekoa: «Ederki. Erran behar dut hargatik edozein bertze sail bati lotu nahiago nukeela [...]. Bainan zer galdatzen daukuzuen nehorik baino hobeki baitakizue, aitzina...».

<sup>30</sup> Artikulu honen harirako funtsezkoa ez den arren, ezin dugu aipatu gabe utzi Lafittek eta Azkuek hizkuntz ereduaz diotena. Hona Lafitteren hitzak: «Eskuetaratu dauzkidate hor gaindiko liburu eder zombait, mintzaira garbi-garbiz orhatuak eta, dioten bezala, ulert-gaitzak. Holako lanek ez baitukete irakurlerik ez Laphurdin, ez Benabarren, ez Ziberon, xedea, xede zina banuke eskuara xehe-xehez artzeko». Eta hona hemen Azkueren erantzuna: «Zerorrek ederki diozunez itzulpen oiek ulert-errezak izan bear dute, bestela euskereari indarra eman bearrean kalte aundia egingen diote».

Azkue euskaltzainburuaren eta batik bat Olabideren ondoan; ez dirudi Azkueren ekimena Orixeren 1919ko proiektuari emaniko erantzun zuzena denik, baina Orixe egitasmo berriaren jakitun izan zen, zalantzarik gabe. Nolanahi ere, hurrengo urteetan ez dugu aurkitu xede honen emaitzen arrastorik.

### Eranskina: Orixeren eskuzko gutuna



1.

da colección en los centros de Tíboria, Suvaup, Aurdain, Godejuela etc.; no había curiosos que la compraran a título de la versión vasca. La utilidad pedagógica para nuestros jóvenes sería enorme, y no digamos nada de la formación literaria sólida. La utilidad y autoridad de una versión concienzudamente hecha, sería casi la misma ventaja. Si vivían métodos, la trascendencia que podría hacer la solidaridad y unión de esfuerzos de los centros indicados, favorecidos por esa primera cooperación, se animaría sin duda a poner una imprenta griega, cosa indispensable, o a editar en los puntos esas obras, aunque sea en París o en Barcelona.

Cuando sobre la mesa en lindos tomos de los "diálogos de los muertos" del autor Luciano, editada en la librería de Colin (París) que se viene de comears. Después vendrían la Eucopides de Anofonte, y otras obras históricas poéticas y oratorias. Sigase lo mismo de las vidas de varones ilustres de Cornelio Nepote, Cartas y tratados filosóficos de Cicerón etc etc. cuya traducción me animaría a emprender. En las notas literarias y gramaticales, y en el vocabulario vasco y castellano para los que no entiendan aquella len-

2

qua, me ayudaría otros.

A ver si le da V.R. el favor  
y responde a esta carta. El asunto de ella no es qui-  
nicio sino muy realizable, práctico, y necesario, si  
queremos hacer cosa derecha y no desorientarnos en  
el movimiento que comienza.

Acabo de recibir el número de "Sega" que pres-  
cindiendo de lo de L.P. cuyas páginas <sup>me</sup> instintivamen-  
te me las recorro, y que pasará a otros no iniciados, pres-  
cindiendo de los diez, ha llegado a dar en el quit como  
yo no me atrevo a augurar. Esto en cuanto al tono  
literario, que en lo demás <sup>por lo interesante como</sup> la carta del P. Léniz, la mi-  
sica tan bien presentada. (¡lastima que la letra me resul-  
ta pesada por atarme al Evangelio!), la de Pedro Miguel,  
la relación del Estanislao de Lunnaga y sobre todo la  
de Anieta D., mas el postre de agri-dulces, es un  
número modelo, ideal iba a decir, hecho la salvada  
primera. Mil enhorabuena. Si se sostiene así habrá  
una campaña excelente.

Yo todavía nada le envío: veremos para el mes  
de Enero.

Affine a J.C. N. Omacien S.P.

Iluma: Azkue Biblioteka eta Artxiboa.

## Erreferentziak

ALTUNA, P., 1989, «Orixek Jesusen Lagundian emaniko urteak (1907-1923)», *Euskera*, 34 (1989), 71-122.

AZTERTZALLE, 1922a, «Euskaltzaindiaren sariketa», *Euskal-Esnalea*, 208 (1922, jorrraila), 90-91.

———, 1922b, «El Certamen de la Academia», *Euskal-Esnalea*, 224 (1922, dagonilla), 166.

BERMOND, D., 2008, *Armand Colin. Histoire d'un éditeur de 1870 à nos jours*. Armand Paris: Colin.

BILBAO, G., 2018, «Orixeren itzulpen argitaragabea: Homeroren *Iliada* VI, 466-496», in G. Bilbao, P. Gartzia eta M. K. Menika (koor.), *Bai, jauna, bai: fisika euskaraz! Jose Ramon Etxebarria irakaslearen omenez*. Bilbo: UEU, 271-281.

ELGEZABAL, C. eta LANDABURU, F., 1920, «Euskaltzaindia nola ta noiz jαιο ta geitu zan», *Euskera*, 1 (1920), 35-48.

ERRANDONEA, I., 1918, *Gramática latina*. Bartzelona: E. Subirana Edit. y Lib. Pontificio.

EUSKALTZAINDIA, 1920a, *Euskaltzaindiaren sortarauak. Estatutos de la Academia de Lengua Vasca*. Bilbo: Euzko Argitaldaria.

———, 1920b, «Euskaltzaindiaren lenengo urteko batzarrak», *Euskera*, 1 (1920), 49-80.

INTXAUSTI, J., 2014, *Euskara eta hizkuntzak, gizartean I. Aitorpenak. Ekinbideak*. Bilbo: Euskaltzaindia [Etxeberri Bilduma. EHS].

IZTUETA, P., 1991, *Orixe eta bere garaia*. Donostia: E.J. & Etor.

———, 2003a, *Orixe saiogilea*. Donostia: Utriusque Vasconiae.

———, 2003b, *Orixe auxitan*. Donostia: Utriusque Vasconiae.

———, 2003c, *Orixe gaitzetsia*. Donostia: Utriusque Vasconiae.

IZTUETA, P. & IZTUETA, I. (ed.), 2006, *Orixe. Gutunak (1917-1961)*. Donostia: Utriusque Vasconiae.

LLANAS, M., 2005, *L'edició a Catalunya: el segle XX (fins a 1939)*. Bartzelona: Gremi d'Editors de Catalunya [Història de l'Edició a Catalunya bilduma].

LULL MARTÍ, E., 1997, *Jesuitas y pedagogía: el Colegio San José en la Valencia de los años veinte*. Madril: Universidad Pontificia Comillas.

ONAINDIA, S., 1974, *Euskal literatura III. Bi menderen artean: 1895-1920*, Etor, Donostia.

———, 1975, *Euskal literatura IV. 1910-1935*. Donostia: Etor.

———, 1977, *Euskal literatura V. 1915-1940*. Donostia: Etor.

ORMAETXEA «ORIXE», N., 1922, «Eusko olerkitzaz», in Euskaltzaindia (ed.), *Le-nengo Euskalegunetako itzaldiak*. Bilbo: Euzko-Argitaldaria, 31-41.

ORMAETXEA «ORIXE», N. [Paulo Iztueta ed.], 1991a, *Idazlan guztiak I. Sorkuntzazkoak*. Donostia: E.J. & Etor.

———, 1991b, *Idazlan guztiak II. Itzulpenak*. Donostia: E.J. & Etor.

———, 1991c, *Idazlan guztiak III. Artikulu eta saiakerak*. Donostia: E.J. & Etor.

REY FAJARDO, J., 2017, *Fuentes documentales de la Paideia Jesuítica*. Caracas: Universidad Católica Andrés Bello abediciones.

RUIZ ARZALLUZ, I., 2009, «Literaturaren zertarakoa, itzulpenak eta hizkuntzaren auzia Orixerengan», *ASJU*, 43.1-2 (2009) [Beñat Oihartzabali gorazarre], 805-818.

———, 2010, «Traducciones vascas de los clásicos griegos y latinos (1802-1936)», in F. García Jurado et al. (edd.), *La historia de la literatura grecolatina durante la Edad de Plata de la cultura española (1868-1936)*. Málaga: Universidad de Málaga, [Analecta Malacitana. Anejos, 78], 487-508.

SUDUPE, P., 1999, «Sarrera», in P. Sudupe (ed.), *Andimaren idazlan hautatuak*. Donostia: Elkarlanean, 7-40.

TORREALDAI, J.M. & MURUA, I., 2009, *Euskaltzaindia. Ekin eta jarrai*. Bilbo: Euskaltzaindia.

ZAVALA Y FERNÁNDEZ DE HEREDIA, L.M. (koor.), 2008, *Política y vida cotidiana II: la sociedad vasca del siglo XIX en la correspondencia del Archivo de la Casa de Zavala*. Lasarte-Oria: Etor-Ostoa.